



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016-04-05

BILERA ZENBAKIA:29

ORDUA ETA LEKUA: Itsa sondoko Udala, arratsaldeko 7etan

PARTEHARTZAILEAK: 4 neska eta mutil 1

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

Aurreko hileko etxeko lanen errepassoa egin da. Ttipi ttpa egitasmoari dagokionez, parte hartzaileak prest agertu dira erregistro kuadroa betetzeko. Parte hartzaileen kopurua gora doa eta momentu honetan 20 bat pertsonak hartzen dute parte. Gizarte Langileak eskutitza bidali du etxeetara (85 urtetik gorakoei batetik eta mendekotasuna dutenei bestetik).Harrera planari dagokionez, gizarte langileak udaleko harrerako administrariari ongi etorri eskutitza utzi dio, iritsi berriei emateko.

HARRERA PLANA:

Ongizate Lantaldera etorri garenen artean, harrera plana osatu dugu. Prestatuta dagoen txostena errepassatu dugu eta falta den informazioa osatzeko ardurak banatu. Txostenak beste batzordeetara, eskolara eta udal langile batzuei ere pasa die zinegotziak eta bertatik jasotako ekarpenekin osatuko dugu. Elkarbizitzan garrantzitsuak izan daitezkeen arau batzuk ere sartzeaz hitz egin dugu; hala nola, zabor bilketa sistema, txakur kakak e.a Bestetik emakumeen aurkako indarkeriarik ez bezelako mezua ere, txostenean isladatzearen aukeraz hitz egin da. Txostena euskara hutsean prestatu dugu. Hala ere, euskara-gaztelera eta euskara-ingelesa hizkuntza presente duten txostenak ere prestatzea erabaki da. Ongi etorri planaren helburu nagusia, herrira etorri berri diren pertsonak herria ezagutu, bertan integratu eta instalazioak erabiltzen hastea da, baita herriko eragile bihurtzea ere bertako antolaketan parte hartzea gonbidatuz. Hau bermatzeko, ezinbestekoa da zubi lana egingo duten herritarrak topatzea. Herritar hauek laguntzaile eran arituko lirateke eta herritar etorri berriarentzat bidelagun izango lirateke herriko ekintzetan parte hartzeko orduan.

Maiatzeko ongizate lantalderako, txostena osatuta egotea komeni dela aipatu dugu. Bestetik udalera etorri berriak direnen zerrenda eskuetan izatea ere, ekaineko bilerara etor daitezkeen herritarren perfila aurreikusteko. Ordura bitarte, ekarpenak jasoko dira eta txostena hizkuntza ezberdinetan prestatuko da.



DESFIBRILADOREA:

Orain arte, zerrendak jaso eta bost pertsonak izena eman dute ikastaroan. Lantaldeko kide batek ikastaroa egingo duten adituekin harremanetan jarri eta maiatzaren 25 eta 26rako lotu ditu datak. Ikastaroa arratsaldeko 18tatik 20tara izango da udaleko lehen solairuan. Taldea gutxienez 8 pertsonakoa eta gehienez 12 pertsonakoa izatea eskatu dute eta trukean test bat betetzeko eskatuko diete parte hartzaileei.

BERDINBIDEAN:

Gipuzkoako Foru Aldundiak Berdinbidean programaren bidez, herri txikientzat berdintasunaren gaia lantzeko laguntza eskaintzen du, baldintza batzuk betetzeko eskatuz. Duela bi urte, Itsasondoko herriak parte hartu zuen egitasmoan eta emaitzak kaxkarrak izan ziren.

Aurten ere egitasmoan parte hartzeko aukera mahai gainean jarri da eta lantaldean erabaki da aurtengoz ez egitea. Ezezkoaren arrazoa, ongizateko lantaldeko kideen lan zama batetik eta gai hau lantzeko ia antolatu diren ekintzak bestetik (dokumentalak eta mikromatxismoak lantzeko asmoa). Hala ere, programa honen garrantzia azpimarratu da eta herri txikietan gaia lantzeko ezinbestekotzat jo da Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza.

ETXEJABETZEEN AURKAKO ZERBITZU JURIDIKOA:

Gizarte Langilea zerbitzu honen aurkezpena bertaratu zen eta ongizate lantaldeko kideei informazioa helarazi die. Gipuzkoako Foru Aldundiak ahokularitza juridiko zerbitzua du martxan, ohiko etxebizitza galtzeko arriskuan dauden pertsonak laguntza juridikoa eska dezaten. Eskaera udaleko gizarte zerbitzuetatik egin behar da.

ITSASONDO 2.0 ALDIZKARIA

Ongizateko lantaldeari itsasondoko herritarrei elkarriketak egiteko ardura egokitu zaio (Goiberri aldizkariko lehen orrian egiten dutenaren formatoa erabiliz). Lehenengo aldizkarirako elkarriketatua badugu iadanik baina urrengo lantalde bilerarako elkarriketatua izan daitezkenen zerrenda prestatzekotan geratu gara. Elkarriketak egiteko ardura lantaldeko kide batek izango du. Herritar guztiak elkar ezagutzeko helburuarekin beste herrialde batzutatik etorri direnei eta beste herrialde batzuetara joan direnei ere elkarriketak egitea erabaki da, aniztasuna isladatuz.



TTIPI-TTAPA EGITASMOA

Erorketa tailerra: Tomas Plazaolarekin (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila) harremanetan jarri eta tailerra herriko osasun zentroarekin batera martxan jartzekotan geratu gara. Iraila, Urria edo Azaroa izan daitezke data egokiak.

Soinketa tailerra: Tipi ttapako parte hartzaileak oso gustora daude tailerrarekin eta jarraitzeko nahia eta asmoa adierazi dute. Hau ikusita, jarraipena bermatzea erabaki da ongizateko lantaldean eta aurrekontuetan kontutan izatea. Urritik abendura bitartean berriro tailerrarekin jarraitzeko erabakia hartu da lantaldean. Ekainerako diru laguntza eskatzeko aukera izango dela aurreikusten da beraz ordurako ere kontutan izango da.

Hitzaldi sorta: batetik ondo lo egiten saiatu hobeto bizitzeko hitzaldia lortzen saiatuko gara (kutzako sozial arloan edo Ainara Lopetegirekin harremanetan jarri zuzenean). Doluaren inguruko hitzaldia lotzeaz lantaldeko kide bat arduratu da eta posible bada maiatzaren 16an izango da, bestela aurrerago.

** Landu gabe geratu dira ondorengo gaiak, gai hau daramaten lantaldeko arduradunak ezin izan direlako bertaratu:

- SAREAN topagunea nola antolatu.

-Sensibilizazio Kanpaina nola hasi denboraren bankua martxan jarri aurretik.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Hitzaldi sorta: ondo lo egitea, dolua, erorketa tailerra	maiatza	Erkuden, Rut, Jabi
Etorri berrien zerrenda atera	maiatza	Itsaso
Desfibriladorearen ikastaroa baieztatu	maiatza	Rut
Harrera plana bi hizkuntzetan prestatu	maiatza	Erkuden
Aldizkarirako elkarrizketatuak izan daitezkeen zerrenda	maiatza	Itsaso

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Maiatzaren 17 egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.


Gai ordena:

-SAREAN topagunea nola antolatu.

-Sensibilizazio kanpaina nola hasi denboraren bankua martxan jarri aurretik,

-Mikromatxismoak.

-Ongi etorri plana: etorri berrien zerrenda ikusita, lehenengo bilera osatu eta ekaineko harrera



antolatu.

-2.0 Aldizkaria: Elkarrizketatuak izan daitezkeenen zerrenda jaso.

-Siriar errefuxiatuei laguntzeko ideiak jasotzea.